

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ANDOAINGO UDALA

Gizarte Zerbitzuetako alorrean diharduten erakunde eta elkarteei diru laguntzak emateari buruzko Araudiaren behin-betiko onespena.

Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2016ko maiatzaren 26ako batzaraldian, hasierako izaeraz Gizarte Zerbitzuetako alorrean diharduten erakunde eta elkarteei diru laguntzak emateari buruzko Araudiaren aldaketa onartzeari buruzko erabakia hartu zuen. Behin betiko testua iragarki honen jarraian txetatzen da.

Aipatu aldaketa argipideketa publikora eta interesatuen entzunera jarri zen, 30 egunez, eta horren aurrean erreklamaziorik ez eta iradokizunik aurkeztu ez denez, behin-betikoz onartutzat geratzen da plenoko akordioan ezarritakoaren arabera, eta hori berori jendaurrea jakitera ematen da apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan xedatuaren indarrez, aldaketaren behin-betiko testua, iragarki honi goain atxikirik doana izanik.

Interesatuak bide administratiboan behin betikoa den erabaki honen aurka jo dezakete, Bilbon dagoen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Areatan administrazioarekiko auzi-helegitea jarritz bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Andoain, 2016ko uztailaren 11.—Ana Carrere Zabala, alkatea. (5167)

Gizarte Zerbitzuetako alorrean diharduten erakunde eta elkarteei diru laguntzak emateari buruzko araudia.

1. artikulua. Xedea.

1. Berariazko ordenantza honen xedea da, udaleko Aurrekontu Burutzapenerako Arauaren barruan, diruz laguntzea honako giza taldeetako baten edo gehiagoren inguruan antolatzen diren Gizarte Zerbitzuetako ekintza edo egitarauak: haurrak, gazteak, emakumea, elbarriak, adinduak, gutxiengo etnikoak, preso-ohiak, toxikomanoak, iragaitzeko edo pasadizoko pertsonak eta arrisku sozialean egonik Gizarte Zerbitzuen beharra duen beste edozein talde.

2. Ekintza edo egitarau hauek honokoa zehaztuta izango dira:

- Elkarleen jarduera arrunta mantentzea.
- Elkarlearen jardueraren sensibilizazio, prestakuntza, informazio eta zabaltzeko ekintza espezifikoak egitea.
- Elkarlearen jardueraren xede diren taldeentzat esku hartzeko programa espezifikoak garatzea.

2. artikulua. Onuradunak.

Diru laguntza lortu ahal izateko erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Legearen arabera osatuak.
2. Erakunde edo elkarte Andoaingo izatea, edo jarduera-esparrua Buruntzaldea-Beterri izatea, edota Gipuzkoako lurraldekoa izanik udal Gizarte Zerbitzuekin harreman zuzena

AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN

Aprobación definitiva de la modificación de la Normativa sobre subvenciones a entidades y asociaciones en el ámbito de los Servicios Sociales.

El Pleno Municipal en sesión celebrada con fecha 26 de mayo de 2016 aprobó con carácter inicial la modificación de la Normativa sobre subvenciones a entidades y asociaciones en el ámbito de los Servicios Sociales, el texto definitivo es el que se inserta a continuación del presente anuncio.

Como quiera que durante el trámite de información pública, no se ha presentado reclamación o sugerencia alguna, de conformidad con lo previsto en el referido acuerdo plenario, dicha modificación queda aprobada definitivamente, lo cual se hace público en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, siendo el texto definitivo de la modificación el que se inserta anteriormente.

Contra la presente resolución que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas pueden presentar Recurso Contencioso-Administrativo, ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Andoain, a 11 de julio de 2016.—La alcaldesa, Ana Carrere Zabala. (5167)

Normativa sobre subvenciones a entidades y asociaciones en el ámbito de Servicios Sociales.

Artículo 1. Objeto.

1. Es objeto de la presente ordenanza específica, establecer, en el marco de la Norma de Ejecución Presupuestaria municipal, las bases reguladoras de las subvenciones dirigidas a subvencionar las actividades y programas de los Servicios Sociales, cuyo ámbito se extiende a uno o varios de los colectivos siguientes: Infancia, Juventud, Mujer, Minusválidos, Tercera Edad, Minorías étnicas, Ex-reclusos, Toxicómanos, Transeúntes y cualquier grupo en riesgo social que precise la atención de los Servicios Sociales.

2. Estas actividades y programas se concretan en:

- Mantenimiento de la actividad ordinaria de la asociación.
- Realización de acciones específicas de sensibilización, formación, información y difusión de las actividades de la asociación.
- Desarrollo de programas específicos para la participación de grupos objeto de la actividad de la asociación.

Artículo 2. Entidades beneficiarias.

Podrán solicitar subvenciones las entidades y organizaciones que reúnan los siguientes requisitos:

1. Estar legalmente constituidas.
2. Que la asociación sea de Andoain, o que atienda demanda de la comarca de Buruntzaldea-Beterri, o sea una entidad del Territorio de Gipuzkoa, que mantenga una relación

izatea, udalerrikoak diren herritarrei dagokienez haien jarraipena egiteko eta orientabidea ematea, eta/edo Andoainen jardueraren bat burutzea.

3. Irabazi asmorik ez izatea.

4. Helburuak beteko direla bermatzeko azpiegitura nahikoa izatea, eta horretarako beharrezkoa den esperientzia egiaztatzea.

3. artikulua. *Diru-laguntza emateko irizpideak eta zenbatekoa.*

1. Diru laguntzen zenbatekoa ez da ekitaldi bakoitzean udal Aurrekontuetan urtero izendatzen den partidan consignatzen denaren gorakoa izango, deialdiarekin batera ezagutaraziko dena.

Egitarauak gauzatzeko diru-laguntzak ondorengo baldintzen arabera banatuko dira:

— 35 puntu baino gehiago lortzen dituzten elkarte edo entitateak: eskatutako kopurua 1.500 euroko gehienezko mugarekin.

— 16 eta 35 puntu artean lortzen dituzten elkarte edo entitateak: 300 euro.

— Gutxienez 15 puntu lortzen dituzten elkarte edo entitateak: 150 euro.

2. Diru-laguntza jaso ahal izango duten ekintzak 1. artikuluan xedaturikoak izango dira.

3. Balorazio-irizpideak honakoak izango dira:

— Andoaingo elkarteak: 25 puntu.

— Zonaldeko eskaera hartzen duen elkarteak: 7 puntu.

— Gipuzkoako lurraldeko entitateak: 3 puntu.

— Andoainen jarduerak egiten dituzten elkarte edo entitateak: 10 puntu arte.

* Bi jarduera edo gehiago: 10 puntu.

* Jarduera bat: 5 puntu.

* Jarduerarik ez: 0 puntu.

— Zuzendaritza Batzardeetan emakumeak dituzten elkarte edo entitateak: 5 puntu arte.

* Parekotasuna: 5 puntu.

* %25 emakumeak: 3 puntu.

* <%25 emakumeak: 0.

4. Diru-laguntza honela ordainduko da:

* %70 diru-laguntza ematen denean.

* %30 egin diren jarduerak dokumentuen bidez ziurtatzen direnean, eta kontuak aurkezten direnean.

4. artikulua. *Onuradunen betebeharrak.*

Elkarte onuradunek honoko betebeharrak izango dituzte:

a) Elkarteei diru-laguntzak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontuan hartuko da. Ondorioz, Andoaingo Udalarengandik dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, beren jardun subentzionatuetan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte, propaganda ere, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dutelarik. Era berean, ospakizun konketuetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dituzte. Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna.

b) Eska dakiezaieke dokumentazioa denboran eta behar bezala aurkeztea.

directa con los Servicios Sociales municipales, para el seguimiento y orientación de casos de personas que son de la localidad y/o realicen alguna actividad en Andoain.

3. Carecer de fines de lucro.

4. Disponer de la estructura suficiente para garantizar el cumplimiento de los objetivos, acreditando la experiencia operativa necesaria para ello.

Artículo 3. *Cuantía y criterios para la concesión de la subvención.*

1. El conjunto de subvenciones no excederá de la cantidad que en cada ejercicio se consigne en la partida que anualmente se designe en los Presupuestos municipales que se dará a conocer con la notificación de la convocatoria.

Las subvenciones para la ejecución de programas se distribuirán según los siguientes criterios:

— Asociaciones o entidades que consigan más de 35 puntos: cantidad solicitada con un tope máximo de 1.500 euros.

— Asociaciones o entidades que consigan entre 16 y 35 puntos: 300 euros.

— Asociaciones o entidades que consigan un mínimo de 15 puntos: 150 euros.

2. Podrán ser subvencionadas las actividades citadas en el artículo 1.

3. Los criterios de valoración serán los siguientes:

— Asociación de Andoain: 25 puntos.

— Asociación que atienda demanda de la comarca: 7 puntos.

— Entidades del Territorio de Gipuzkoa: 3 puntos.

— Asociaciones o entidades que realizan actividades en Andoain: hasta 10 puntos.

* Dos o más actividades: 10 puntos.

* Una actividad: 5 puntos.

* Ninguna actividad: 0 puntos.

— Asociaciones o entidades con presencia de mujeres en la Junta: hasta 5 puntos.

* Paridad: 5 puntos.

* 25% mujeres: 3 puntos.

* <25% mujeres: 0 puntos.

4. El pago de la subvención se efectuará:

* 70% en el momento de concesión.

* 30% a la presentación de cuentas y documentación que certifica la actividad.

Artículo 4. *Obligaciones de las entidades beneficiarias.*

Las entidades beneficiarias deberán cumplir las siguientes obligaciones:

a) A la hora de conceder subvenciones a las asociaciones se tendrá en cuenta el criterio lingüístico. En consecuencia, las asociaciones o entidades que perciban alguna subvención del Ayuntamiento de Andoain, bien sean personas físicas o entidades jurídicas, deberán redactar y dar a conocer todo escrito, anuncio, aviso o mensaje análogo que se haga público en sus actividades subvencionadas en euskera, o en euskera y castellano, incluida la propaganda, tanto la escrita como la oral, que también se realizará en euskera o en euskera y castellano. Asimismo, los mensajes emitidos a través de megafonía en actuaciones y celebraciones puntuales deberán ser en euskera o en euskera y castellano. En las declaraciones que se hagan en euskera y castellano, sobre todo en las de carácter oral, se dará prioridad al euskera.

b) Presentar en tiempo y forma la documentación que se les solicite.

c) Gastuak behar bezala zuritzea.

5. artikulua. Eskaera.

Eskaerak eredu bakar bati jarraiki aurkeztuko dira. Eredua Udaleko bulegoetan jasoko da. Horrekin batera eskaerako zehaztapenei dagozkien agiriak aurkeztu beharko dira.

Eskaerei zerbait faltako balitzaie, erakundeek 15 eguneko epea izango lukete beharrezko dokumentazioa aurkezteko.

6. artikulua. Aurkezteko epea.

Eskaerak deialdia egiten denaren hurrengo egunetik eta zehazten den epean aurkeztu ahal izango dira.

7. artikulua. Dokumentazioa.

Eskaerarekin batera honokoa aurkeztu beharko da:

1. Diru laguntza zein egitarau edo ekintzatarako eskatzen den, egitarau edo ekintza horien azalpena emango duen memoria.

Horrekin batera, garatutako ekintzen memoria, eta emaitzen balorazioa aurkeztu beharko dituzte.

2. Memoria ekonomikoa:

Eskaerari dagokion gastuen txosten ekonomikoa aurkeztu beharko da. Subentzionatua izan den kopuruari dagokion gastuaren jatorrizko frogagiriak aurkeztu beharko dira.

8. artikulua. Diru-laguntza zuritzea.

Diru-laguntzaren azken zuriak datorren ekitaldiko urtarri-laren 15a baino lehen aurkeztu behar da, txosten ekonomikoa eta fakturak aurkeztea nahitaezkoa izango delarik laguntzaren bigarren zatia jasotzeko.

9. artikulua. Laguntzen aldiberekotasuna.

Araudi honetan arauturiko diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu berarekin beste herri administrazio batzuegandik jasotakoekin edo entitate pribatuek emandakoekin. Horregatik, elkarte edo entitateak Andoaingo Gizarte Zerbitzuei dirulaguntza jaso izana jakinarazi beharko die.

Jasotako dirulaguntza guztien baturak ezingo du inolaz ere gainditu gastuen guztizko kopurua. Hau gertatuko balitz, laguntzaren gehiegizko zenbatekoa Andoaingo Udalari itzuli beharko zaio.

c) Justificar adecuadamente los gastos.

Artículo 5. Solicitud.

Se formalizarán con un único modelo de instancias que se recogerán en las dependencias municipales, al que se unirán los documentos pertinentes que en él se relacionan.

Si las solicitudes estuvieran incompletas, las entidades contarán con un plazo de 15 días para aportar la documentación necesaria.

Artículo 6. Plazo de presentación.

Se podrán presentar las solicitudes desde el día siguiente al de la convocatoria y dentro del plazo que en la misma se señale.

Artículo 7. Documentación.

Deberá acompañarse a la solicitud.

1. Una memoria explicativa de cada uno de los programas o actividades para los que se solicita la subvención.

Igualmente, deberán presentar la memoria de las actividades desarrolladas y la valoración de los resultados.

2. Memoria económica:

Deberá presentarse una memoria económica del gasto efectuado. Se deberán presentar los justificantes originales del gasto por el importe subvencionado.

Artículo 8. Justificación de la subvención.

La justificación final de la subvención se deberá presentar hasta el 15 de enero del ejercicio siguiente, siendo imprescindible la presentación de la memoria económica y las facturas para el cobro de la segunda parte de la ayuda.

Artículo 9. Concurrencia de ayudas.

Las ayudas previstas en la presente normativa serán compatibles con la obtención de cualquier subvención o ayuda que, para el mismo fin, pueda obtenerse de cualquier otra Administración Pública o Entidad Privada. Por ello, la asociación o entidad deberá informar sobre la misma a los Servicios Sociales de Andoain.

En ningún caso se podrá superar el total de los gastos con las subvenciones o ayudas recibidas. Si esto ocurriera, el exceso de la ayuda deberá ser reintegrado al Ayuntamiento de Andoain.